

LORENTZO SALABERRIA ABADEA HIL DA
(1916.09.15 – 2002.01.01)

1. Sarrera giza.

Bai, 2002, urte barria estreinatuz eta berehala, goizean goiz, 01,30tan Lekeitioko Abade-etxean emon eban bere azken-amasa.

Danetik ebilen ondo, gauza batetik izan ezik, aurretiaz Galdakaoko Ospitalean esan euskuen lez: geroago eta makalagoak izango zirala bere zerebroko funtzioak. Lemoako parrokian destinatuta gengozala hasi ginan sumatzen bere beherakada hori. Urtea joan eta urtea etorri, geroago eta gehiago nabaritzen geuntson koordinakuntza-eza. Azken aldi honetan ia-ia guztiz lotara emonda bizi izan zan.

Gabon-gabeko Meza ondoren, berak bedeinkatu euskun Gabon-afaria “Mesias sarritan agindu zana”ren abestiko “Belengo portalian” soloa abestuz. Entzutekoak ziran D. Lorentzoren “Hantxe dago gure Jesus, hantxe dago...” samur eta hunkigarriak! Bai, benetako fedean, zoriontasunean eta familia-giro baten ospatu genduan Jaunaren jaiotza. Eta, zoritxarrez, abenduaren 26an, bazkaltzen gengozala emon eutson gaixo horrek bere tau-padarik gogorrena, ezkerreko aldia gelditu jakon eta, apur-apurka. Urte Barria estreinatu arte beherantza joian... kontzientzia galduz... esan dogun moduan azken-arnasa emon arte.

2. Zehaztasun batzuk.

Santiago eta Jesusa bere gurasoak ziralarik jaio zan gure D. Lorentzo Ermuako herrian 1916.09.15an, zazpi neba-arrebetatik

seigarrena izanik. Bakarrik eurretatik bat gelditzen da bizirik, Casto, gazteena. Zazpi horretatik, hiruk Jaungoikoari eskeini eutsoen bizitza osoa: Beatrizek (Berrizko Mertzedaria), Josek (Jesuita-abadea) eta D. Lorentzok. Edertasun zoragarria familia batentzako!

Ermuan bateatua eta Sendotua; mutiko zala Seminariora joan zan eta gure gerra ostetxuan egin zan abade Gasteizen berrogeita hirugarren urtean, ia-ia hirurogeit urte abade-ministeritzan biziz: lebenengo, Gipuzkoan, Donostiako San Bizenten bost urte, eta Gabiriako parroko lez beste hiru urte. Berrogeita amaikagarrenean, Bilboko Eleizbarruti barria sortzen danean, Bizkaira etorri eta parroko izango da: Berangon hogeit bat urte; hiru urte Erandioko San Agustinen; Durangoko Andra Marian hamazazpi urte; eta bere adinagaitik jubilazinoa hartutakoan, Durangon, lemoan, Diman, Bedian eta, azkenaldi labur honetan, lekeition izan dogu abade.

3. Ezaugarri berezienak

Karmelo Etxenagusia gure Gotzain Laguntzaile jaunak D. Lorentzoren hiletako homilian esan eban lez: "Fede eta bihotz haundiko gizon honek, sutsu maite izan dauz Jaungoikoa, Eleizea eta Euskal Herria".

Hitz honei loturik eta zentzun beretik jarraituz, hiru ezaugarri berezi azpimarratuko neukez hogeit urtean zehar alkarregaz eta geure neke bako zaindari izan dogun Mirarigaz bizi ondoren.

3.1. Gizon: ("Giza-on")

Une honetan, hitz bakoitzari bere indarra eta balioa nahi deusadaz emon halakoxea izan dalako gure D. Lorentzo: *egizale eta apala, alai eta baikorra, benetan eta beti laguna, eskuzabala eta mesedegilea, zintzoa eta zindoa, dohaien edo baloreen maitalea, alkarrizketatzaile eta ekintzaile amorratua, borondate oneko pertsona... hitz baten esanda: **jator-jatorra**.*

Honelako gizon bategaz bizi ahal izateak adorez betetzen zaitu eta, gizadiari buruz, itxaropenez bete. Oraintxe bertan errezkatu edo zerrendatu dodazan dohaien hainbat eta hainbat eredu ipiniko neuskioz... baina neure idazlantxo hau oso luze joango litzatekenez gero...

3.2. Abertzale

Bere ahotikan sarri-sarri etzun izan dodazan hitzak dira honeek: "Neure bizitza guztian zehar amodio bi bizi izan ditut gartsu eta kementsu: *Eleixea eta Euskadi*".

Ondo be ondo ekian D. Lorentzok zelan ez daukan zentzunik guretariko bakoitzat, pertsona lez, alkarte bateko kide edo partaide lez ez bada sentitzen eta bizitzen. Gaur, ostera eta zoritxarrez, asko eta asko egiten da berba erakunde guztietatik giza eskubideei buruz, baina bakarkako pertsona bakoitzari dagokion ikuspegi baten barruan finkatuz. Esan lei, halako-halako zuurtasun-bildurti baten isiltasunezko katepean loturik aurkitzen garala herri edo aberri txikien giza eskubideak defendatzeko orduan! Zer dala-ta, argi eta garbi defendatu eta aldarrikatu ez geure Euskadi maiteak dituan eskubideak herri lez irauteko beste edozein herri edo laterri haundien antzera? Honeri buruz, D. Lorentzo benetan ausarta eta eredu izan dogu bere azken-arnasa emon arte: *gudari, Gernikako bonbaketapean Francoren garaia, "Clero Vasco"koen kide leiala...* Egia esan, badogu non eta zer ikasi!

3.3. Fededun eta Eleiz maitale

D. Lorentzori Jaungoikoa, Jesukristo eta fedea kenduz gero... beste pertsona bateri buruz ariko ginateke berbetan. Bai, Eleizan jaioa, bizi eta hil be bere barruan egin zana genduan gizon, kristau eta abade jator hau.

Honeek ere bere betiko hitzak doguz: "Atseginez beterik bizi izan dot neure abadetza guztia munduaren aurrean Eleiza Ama txukun eta garbi azaldu daiten". Eleizeari buruz egiten ziran kritika txikienak mingarri egiten jakozan bihotz-bihotzez Eleizeagaz maiteminduta egoalako.

Azken bolada honetan, nahiz eta bere ezina ezagutu eta ikusi, meza santua ospatzeko gurari bizi-bizia agertzen euskun egunero. Han kokatzen zan bera eleiztarren artean eta guztiz ezaguna nabaritzan zan bere ahotsa abestiak abesterakoan. Natibitate egunean izan zan bere azken meza.

Eta ikustekoa izan zan bere Untzino santua artzerakoan: jakitun zala, berak erantzun eustan ospakizun guztian zehar. Eta hau amaitu ondoren, bake-bakean geratu zan heriotza heldu arte. Zer dan fedea!

4. Eskerrak emotea.

Lehenengo eta behin, Jaungoikoari eta bere familiari hone-lako gizon, abertzale eta kristau-abade bat emon deuskuelako.

Bigarrenez, eskerrik beroenak hainbat eta hainbat herritak bere hiletara etorri ziran guztiei: Ermutik, Berangotik, Erandiotik, Durangotik, Lemoatik, Dimatik, Bediatik, Ondarrutik etorritako eta baita, nahiz eta Lekeition lau hilabete bakarrik bizi izan, bertoko eleiztarrei be.

Hirugarrenez, meza santua konzelebratzera etorri ziran anai-abade guztiei: dinoenez, hogeitamar egon ziran altarean.

Laugarrenez, hiletan parte hartu eben hiru gotzainei: D. Bittor Garaigordobileri, D. Ambrosio Etxebarriari, eta, amaitzeko, Euskaristiaren buru izan genduan geure D. Karmelo Etxenagusuari. Honek bere homiliaren amaieran abestu eban bertsoagaz nahí dot neuk be amaitu:

“Zeruan goien Irutasuna / Jaungoiko haundi ta maite,
besoak zabal Zuri begira / atseginez egon beite.
Bera izan zenduan mundu honetan / izan guztien izaite:
Bere besotan, betiren beti / zoriontsu bizi zaite”.

Kepa Agirre Zelaia